

Iritzia

Behatokia

Kereilak eta salaketak, konfiantza eta elkarlana sustatzeko estrategia

POR
Miren
Azkarate



Hitzak nahikoa ez eta, kereila kereilaren gain, horixe izan da eguneroko ogia. Eta abertzaleatasunaren gidaritza nor hartuko duen, hori baldin bada auzia, jai dugu

HIZPIDE eta albistegai izan dugu aste honetan, espainolezko izena hitzez hitz itzulita. "Nazioaren egoerari buruzko eztabaida". Izenekin askotan gertatzen den bezala, hemen ere oso argigarria da izena, nazioa singularrean aipatzen du-eta, Espainian kontuan hartzen duten nazio bakarra, eurena alegia. Ez da zer harritu, beraz, Euskadik Mariano Rajoyren hitzaldian lekurik ez izateaz, eta Kataluniak ere ez gehiegirik. Ez da zer harritu euskal parlamentariari emandako erantzunez: ez da ezer aldatuko, ez espetxe-politikan, ez Gernikako Estatutuak aurreikusten dituen eta oraindik eskualdatu gabe dituzten eskumenetan, ez autogobernuaren sakontzean... Presoen sakabanaketari eutsiko diote, ez da inon maila honetako autonomia estatuturik... Zaharra berri. Bakea, bizikidetzatza, Euskadirekin beste modu bateko harremana lantzea ez daude Rajoyren agendan. Egia esan, ez orain agintean dagoen alderdiaren agendan, baina ezta oposizioiko beste zenbait alderdiaren agendan ere. Horren aurrean zer? Hor dugu Urkullu lehendakariak Legebiltzarren esku utzi duen saioa, Estatutu Berri baterako Proposamenari duela hamar urte eman zioten ate-danbatekoaren ondoren Estatutu berri baten alde ahalik eta akordio-

rik zabalena lortzeko saioa. Badirudi popularraren laguntza handiegirik ezin dugula espero; sozialistek ere ez du ematen orain arteko diskurtsotik aldentzeko asmo gehiegirik dutenik. Erabakitze eskubidea aipatzea nahikoa da gizartea zaituko duen egitasmorik ez dutela babestuko entzuteko. Ramon Jauregiaren iritziaren berri izan dugu egun hauetan bertan: Euskadi eta Kataluniaren "izaera berezia" jasotzearen alde, baina autodeterminazioa edo horren antzekorik inola ere ez (nora joan ote zaigu Trantsizioko lehen urteetako PSE-EE hura, autodeterminazioaren aldeko aldarrikapena egiten zuena?). Zer geratzen zaigu orduan? Abertzaleen arteko elkarlana, hasteko behintzat; Eusko Legebiltzarrean gehiengoa duten alderdien artekoa. Aitortu behar dut esperantza apur bat sentitu dudala azken hilabeteetan EH Bilduko arduradunen adierazpenak irakurri, eta Ficoba erakustazokan Euskal Bidea aurkeztean esanak entzunda. Prest agertu dira lankidetzarako ez bakarrik erabakitze eskubidearen aldeko lanean, baita gizarte-arloan ere, erakundeetan; are, gobernuak osatzeko ere. Esperantza horrekin batera haserrea ere sentitu dut XXI. mendean Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz aldarrikatu dituen ideiak berriak balira bezala eta plazaratzen lehenak eurak balira bezala ikustean. "Eskubide guztiak herritar guztientzat": zer zen, bada, 2001eko Kursaleko adierazpenaren oinarrietako bat. Printzipio Etikoa, hain zuzen ere? Euskal lurraldeen egoera juridiko-administratibo desberdinak abiapuntu harturik, "hiru erritmo eta abiadura", lurralde bakoitzak etapa eta prozedura propioak izan ditzan. Zer zen, bada, Estatutu Politiko Berrirako Proposamenak zioena? "Euskal herritar gisa bizitzeko eta euskal herritar gisa nola bizi nahi dugun hautatzeko erabakitze eskubidea behar dugu". Zer izan zen, bada, Eusko Jaurlaritzak lehenik eta Eusko Legebiltzarrek, ondoren, gehiengo osoz onartu zuen Kontsulta Legearen oinarria eta

funtsezko aldarrikapena? Euskal identitate babesteko eta garatzeko ez ezik, euskal herritarren ongizatea bermatzeko eta handitzeko egitura juridikoa litzateke Euskal Estatua (nori entzun ote diot behin eta berriz baieztatzen bera?). Baina hegaldi laburrekoa izan da nire hasierako esperantza apur hura. Izan ere, hitzez adierazitako elkarlanerako borondate eta eskaintzak ekintzak behar ditu ondoan. Ez dugu, ordea, horrelakorik ikusten. Aitzitik, Euskal Bidea aurkeztu baino hilabete gutxi batzuk lehenago jakinarazi zioten gizarteari EAJ/PNV ez dagoela, oraingoz, horretarako prestatua; nahiago duela PSE-EErekin akordio taktikoak egitea, EH Bildurekin egiazko akordiora iristea baino. Gainera, ustel usain zation jeltzelearen eta sozialisten arteko aurrekontuei buruzko akordioari; tamalgarrira omen da erabakitze eskubidea ukatzen duen alderdia hautatu izana eta ez EH Bildu, herri-akordioetarako borondatea duena (norenkin atera ditu aurrekontuak EH Bilduk behin baino gehiagotan bai Gipuzkoako Foru Aldundian eta bai Donostiako Udalean?). Tokiz kanpokoa eta desegokia Urkullu lehendakariak armak uzteko eginiko proposamena; egiaz gauzatzeko inolako borondatearik ez zuena, beste ekimen bati bidea itxeko baino egin ez zena. Hitzeman, bergizarteratze-programa, ostera, "brindis al sol" omen da. Jaurilaritzak ez duelako oraindik espetxe-politiken gaineko eskumenik. Sakabanaketari amaiera ematea, horretan jarri behar du ahalegin osoa Gobernuak (antza denez, horretarako ez du beharrezko espetxe-politiken gaineko eskumenik)... Ez dakit adostasunera erakarri nahi direnak konbentzitzeko biderik egokiena den deskalifikazioa, borondatea benetakoa baldin bada, behintzat. Hitzak nahikoa ez eta, kereila kereilaren gain, horixe izan da eguneroko ogia bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan ere. Noticias taldekoek joan den astean bertan gogoratu zigutenez, hogeitik gora, gehienak udal mailakoak, azken lau urteetan, ustez irregular-

Ezin izan du ezer frogatu. Baina zalantza, susmoa erein behar da hauteskunde aurreko asteetan; gero ezer frogatzerik egongo ez bada ere, aurrera!

tasunak egon zirelakoan, batik bat hirigintzarekin zerikusia zutenak. Eta ez behin bakarrik, batzuetan bi eta hiru bider ere salatu dituzte alkate ohi batzuek. Gehienek ez dute aurrera egin, baina, bien bitartean, beren izena susmoetan ikusi dute aurreko legealdian alkate izandakoek edo gaur udalaren ardura dutenek. Hauteskundeak hurreratu ahala, areagotu egin da eraso. Aurreko urteetako laburbildumatzat har daitezke Hiriko auzia dela-eta Eusko Legebiltzarrean eginiko interbentzioa eta salaketa: diru publikoa txertatu du EAJ/PNVk hainbat egitasmotan, beti ere beren inguruko enpresariari mesedetan. Gero eta argiago omen dago "trama" bat egon zela dirulaguntza publikoak "onura pribatu gisa" baliatzeko. Ahaztu ote zaigu nor izan zen Bruselan auto elektrikoaren aurkezpena? Nork, zein gobernuak -Euskadiko zein Espainiako- eman zizkion diru-laguntzarik handienak egitasmoari? Ez, ez oker ulertu lerro hauek. Ez dut eskatzen, ez dut nahi ez EH Bilduk eta ez beste inongo alderdik beste aldera begiratzerik irregulartasunak daudela susmo baldin badute. Ez da hori. Eta badakite. Baina badakite, halaber, ez dela zintzoa "sistematikoki ageri dira EAJren siglak irregulartasunei lotuak" dioen mezua zabaltzea. Ez dela zintzoa Gipuzkoako Batzar Nagusietan bultzatutako erabakia, ikerketa-batzordea sortzeko Bidegi auzian egon daitezkeen erantzukizun politikoak argitzea, 26 egunean ikerlana egin eta ondorioak atera beharko ditutena (bide batez, zein alderdirekin batera atera dute aurrera ikerketa-batzordea osatzeko erabakia?). Ba al dago hor bermerik? Ala aldez aurretik erabakitakoa plazaratu baino ez da egingo martxoaren amaieran? Legealdi osoa eraman du Azpiegitura eta Mugikortasuneko foru diputatuak irregulartasunen baten bila; ezin izan du ezer frogatu. Baina zalan-tza, susmoa erein behar da hauteskunde aurreko asteetan; gero ezer frogatzerik egongo ez bada ere, aurrera! Sortu ikerketa-batzordea! Ez da nik esana; euren hitzak dira.

* Donostiako Udaleko EAJ/PNVko zinegotzia



VISPRING

Luxury Beds - London 1901

* LONDON · NEW-YORK · PARIS · MILAN · BERLIN · MOSCOW · BEIJING · HONG KONG

COLCHONERIA MILUNA
(VISPRING BILBAO)

CITA PREVIA: SABADOS TARDE
627 450 219

C/ Henao n.18 esquina C/Ercilla
48009 Bilbao
www.milunabilbao.es
946 947 693

www.vispring.es